

# DROGETEN

ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 305. zenbakia. 2021eko azaroa

## Heriotza perinatala gizarteratzeko bidean






# IRAZABAL

---

## clínica dental



**Ainhoa Zulueta**  
Dokorea

Odontologian Lizentziatua.  
**Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,  
Periodontzian, inplantologian.  
**Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian.  
**Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.**  
Hortz-Estetikan Diplomaturia.  
**Autran Institutua. Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza.  
**New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa.  
**Anibal Alonso Dokorea.**

Astelehenetik ostiralera:  
**8:00**etatik **22:00**etara  
Zapatuetan:  
**10:00**etatik **14:00**etara

# Irribarreetan adituak

## Etor zaitez gu ezagutzera

### Zure beharretara egokitutako finantziazio-planak

#### JARRAI IEZAGUZU

**f** Facebooken: Clínica Dental Irazabal [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)



**IRAZABAL**  
clínica dental

Julian Etxeberria, 12 - 1. esk. - **20600 EIBAR**  
Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)

**ARGITARATZAILEA:**

Euskal Birusa  
Elkarte Kulturala.

**HELBIDEA:**

Erdikokale zeharbidea 2, 1.  
247 posta-kutxa  
943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com  
www.euskalbirusa.eus

**ERREDAKZIO TALDEA:**

Estibalitz González,  
Eneko López,  
Nahia Ruiz Albizuri,  
Jon Saez,  
Libe Solozabal  
eta Dorleta Vidal.

**KOORDINAZIOA****ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

**HIZKUNTZ ARDURADUNA:**

Alazne Aiestaran.

**AZALEKO ARGAZKIA:**

Drogeteniturrri - Pexels.

**LAGUNTZAILEAK:**

Ermua BHI Institutua,  
Antonio Hernández 'Cuco',  
Kaltxango AEK Euskaltegia,  
Patxi López  
eta Valentín Mugarza.

**ARGAZKIAK:**

Ermua BHI Institutua ,  
Nerea Garaizar,  
Maddi Goikoetxea,  
Estibalitz González,  
Eneko López,  
Valentín Mugarza,  
Jessica Oteruelo,  
Nahia Ruiz Albizuri,  
Libe Solozabal  
eta Dorleta Vidal.

**PUBLIZITATEA:**

943 17 93 50 / 688 63 28 76  
drogeten@gmail.com

**INPRIMATEGIA:**

Gertu Koop. (Oñati).

**BANAKETA:**

Piedi Eizagirre,  
Ayoub Hdidou  
eta Olatz Vidal.

**TIRADA:**

2.425 ale.

**ISSN:**

1133-973X.

**LEGE GORDAILUA:**

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du  
bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako  
iritzien erantzukizunik.*

# Bertoko kantuak

*Herritarren ahotik*

Gaia: ume-kantua

## Txirrintxon

(Entzuteko: [www.alboka.es](http://www.alboka.es))

Txirrintxon,  
txirrintxon,  
erreskara  
kamiñon!  
Txirrintxon,  
txirrintxon,  
erreskara  
kamiñon!


Itxi begiak!



## Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA ..... 4 Jessica Oteruelo (Lanzarote)	MOTZEAN ..... 16 Elkartasun kontseiluaren liburua
ELKARRIZKETA .....5-7 Iratxe Uribelarrea eta Alba Mazo	ESKOLEN TXOKOA..... 17 Ermua BHI Institutuko berriak
MOTZEAN ..... 8 <i>Bihar eta berandu</i> diskoaren urteurrena	IRITZIA..... 18 Aurreiritziak (Libe Solozabal)
SAN MARTIN AZOKAKO ARGAZKIAK ..... 9-13	BOTEPRONTOAN ..... 19 Aitor Bouzo
DEBABARRENETIK DURANGOKO AZOKARA .....14-15	ANTZINAKOAK ..... 20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
	ZORION-AGURRAK..... 21 Saldu, erosi edo agurtu
	ABENDUKO AGENDA.. 22

**Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:**



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Jessica Oteruelo

Jessica Oteruelo ermuarra orain dela zazpi urte joan zen Ermutik, bizitza kalitatea hobetzeko nahiarekin. Gaur egun Lanzaroten bizi da (Kanariar Uharteetan).

**- Zergatik joan zinen Ermutik?**  
Klima eta leku berriak ezagutzeko batez ere, eta baita leku ezberdinetako bizitza estilotan murgiltzeko ere. Hasieran Madrilan egon nintzen 3 urtez, estilista eta *bodypainting* lanak egiten nituelarik; azkenean, kiromasajista bezala prestatu nintzen, eta horretan dihardut orain Kanarietan.

**- Erabaki erreza izan zen?**  
Ez. Negozio bat neukan, eta oso konprometitua sentitzen nintzen harekin. Alde egiteko erabakia hartu nuenean, negozio hura beste pertsona baten esku utzi nuen, baina ez zuen funtzionatu eta azkenean saldu egin genuen.

**- Nola imajinatzen zenuen bizitza Kanarietan?**

Eguraldi onarekin: planak egiteko eguraldiaren menpe egon barik. Zentzu horretan, uste baino hobea da. Badaude oso haizetsuak diren hilabete batzuk, baina hala ere hemengo klima gogoko dut. Bestalde, hemen bizitza lasaiagoa da, odola

iparraldean baino astiroago doa zainetatik. Sumendiek suaren energia transmititzen dute, ilargiak bezala. Gaez gidatzea ere miresgarria da, ez baitago argirik. Janariari dagokionez, bertako jaki asko aurki daitezke, baita oso ondo jaten diren lekuak ere. Halere, ez dago etxekoa bezalakorik! Azoka asko egiten dira (gastro nomikoak, artisau-azokak...), eta musika dago beti nonbait.

**- Hitz egiterako orduan, bertakoen ahoskatze berezi horretara ohitu zara jada?**

Gaztelaraz hitz egiten den arren, turista asko dagoenez, gehienetan ingelesez mintzaten naiz.

**- Zertan egiten duzu lan?**

Hotel batean egiten dut lan masajista bezala, eta horrez gain masaje enpresa daukat, mugikorraren bitartez kontratatu daitekeena. Hoteleko lankideengandik asko ikasten dut eta, nahiz eta autonomoak izan, talde sendoa osatzen dugu, familia bat bezalakoa.



Lanzarote,  
x Kanariar Uharteak

**- Zer egiten duzu aisialdian?**

Itsasoan ibiltzera irteten naiz nire itsasontziarekin, Papagayo hondartza ezagunetara. Irlaren barrualdetik ere bidaiatzen dut sarritan. Urpean igeri egiten ere ikasi nuen, eta geroztik kirol hura, *akroyoga*, mendibiliak eta dantza praktikatzen ditut. 6:30ean jaiki ohi naiz eta yoga praktikatu: asko gustatzen zait egunari horrela ekitea. Oporrak balira bezala bizi naiz, hori da nire jarrera.

**- Gustura zaude?**

Oso! Gustuko dut horrela bizitzea. Ermuan 28 urte igaro izan

baditut, hemen askoz gehiago igaro ahal izango nituzke!

**- Bada faltan botatzen duzunik?**

Lagunekin pintxo-potea.

**- Noiz egon zinen Ermuan azkenengoz? Hona bizitzera itzuliko zara?**

Duela gutxi egon nintzen, baina bidaiia laburra izan zen. Espero dut hurrengoan egonaldi luzeagoa egitea. Bestalde, ez dut uste bertara bizitzera bueltatuko naizenik, baina ezin dut ziurtatu.

Nahia Ruiz Albizuri

**SAN ANTONIO** OKINDEGIA GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

**AMAIA HARATEGIA**

**Bertoko Okelak**

Probaleku 5  
Tfnoa. 943 17 05 84  
**Ermua**

**AIZ**

**AIZ Garraioak, S.L.**

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

**IKASTOLA**  
1968tik Ermua euskalduntzen

## Iratxe Uribelarrea



Alba Mazo

Hitz ugari dago heriotzak eragindako hutsuneak izendatzeko (alarguntasuna edo zurztasuna, esaterako); seme-alabak galtzeak, ordea, ez dauka izenik. Eta esan ohi da izenik ez daukana ez dela existitzen. Baina heriotza perinatala (haurdunaldiko 24. astetik jaio osteko lehen 7 egunetara bitartean gertatzen dena) existitzen da: badaude amaren sabelean hiltzen diren seme-alabak, hala nola jaio eta egun gutxira hiltzen direnak ere. Errealitate mingarri, ulertezin eta bidegabe bezain erreala eta ohikoa. Izan ere, heriotza perinatala izan duten gurasoei laguntzeko Umamanita elkartearen arabera, 200 haurdunalditik batean heriotza perinatala gertatzen da, eta urtero 2.000 ume hiltzen dira Espainian haurdunaldiko 24. astearen eta bizitzako lehen hilabetearen artean. Gizarteak, baina, ezer gutxi daki honen inguruan, historikoki tabua izan baita, etxean eta etxeakoekin igaro beharreko ataka samingarria. Zorionez gauzak aldatzen doaz. Alde batetik, gero eta guraso gehiagok hitz egiten dutelako bizipen honetaz; bestalde, zenbait elkarte (Esku Hutsik elkarte, besteak beste) lan handia egiten ari direlako ospitaletan protokoloak ezartzeko eta bertako langileek formakuntza jasotzeko. Ondoko orriotan, Alba Mazo ermuarraren eta Iratxe Uribelarrea mallabitarraren hitzak jaso ditugu. Atsekabez eta minez jositako ahotsak dira, seme-alabaren bat galdu dugunok geure egiten ditugunak.

Iratxe Uribelarrea, ama:

## "Ume baten heriotza ez dago onartuta, ez dago ondo ikusita, eta ezkutatu egiten da"

2014an Gari semearen heriotzari aurre egin behar izan zion Iratxe Uribelarrea mallabitarrak, haurdunaldiko 29. astean. Handik bi urtera, jaio berria zen Ekairi agur esan zion, bihotzeko ebakuntza batean zendu eta gero. Lan handia egin behar izan du bi dolu horiek gainditzeko, eta esperientziek gogortuta, heriotza perinatala gizarteratzeko beharra aldarrikatzen du.

### - Nola gogoratzen duzu Gariren haurdunaldia?

Oso ondo zihoan, baina egun batean umea sentitzeari utzi nion. Nahiko lasai nengoen hasieran, baina gauean urgentzietara joatea erabaki genuen. Ginekologoari aurpegiaren igarri nion zerbait txarto zihoala, eta galdetu nion: "Ez dago taupadarik, ezta?" Eta hark konfirmatu egin zidan.

### - Nolakoak izan ziren hurrengo orduak?

29. asteko nengoenez, umea erditu behar nuen, eta 30 ordu igaro ziren umea jaio arte. Ginekologoa oso hotza izan zen; emagina, aldiz, oso ondo portatu zen gurekin, eta onartu egin zigun ospitaleak ez zeudela prestatuta horrelako egoerei aurre egiteko.

### - Gari ikusteko aukera izan zenuten?

Eskaini ziguten arren, ni ez nengoen prest. Esaten dute ona dela gorpua ikustea, baina ez naiz damutzen egindakoaz: momentuko erabakia izan zen eta, berriro gertatuz gero, ez

dakit zer egingo nukeen. Beilatokira eraman genuen, agur txiki bat egin, eta gorpua erre. Ni oso ahul nengoen, eta ez nintzen joan. Egia esan, ez genuen dolua ondo landu.

### - Zer gertatu zen hurrengo urteetan?

2016an haurdun geratu nintzen berriro ere, eta 20. asteo ekografian esan zidaten umeak kardiopatia bat zuela: bihotzean bi arteria ditugu gurutzatuta egon behar direnak, eta Ekaik paralelo zituen. Abortatzeko aukera eman ziguten, baina aurrera jarraitu genuen, pronostikoa oso ona zelako: egiten ziren ebakuntzen %95 ondo irtetzen ziren. 37. astean zesarea egin zidaten. Umea Donostian jaio zen, baina Gurutzetako Ospitaleko Neonatologiara eraman zuten, eta 5. egunean ebakuntza egin zioten. Agindutako orduan kirofanora joan ginenean, medikuak pasillo erdian esan zigun umea hil egin zela. Ez ziren izan ez forma ez leku egokiak ere ez. Neonatologiako erizainek oso



Iratxe, haurdun, eta bere bikote kidea, Gari eta Ekairi izarrekin. Arg.: Nerea Garaizar.

ondo tratatu gintuzten, baina ez ziguten inolako laguntzarik eskaini.

### - Nola agurtu zenuten Ekai?

Gariri eta Ekairi, biei, agurra egingenien Trabakun. Senideak eta lagun mordoa bildu ginen, eta oso ondo etorri zitzaidan, doluaren zati bat ixten lagundu zidalako.

### - Dolua ezberdina izan zen?

Bai, erabaki genuen landu behar genuela, eta terapia egiten hasi ginen. Gutxira haurdun geratu, eta 2020ko abuztuan Inhar jaio zen.

### - Heriotza perinatalari dago-kionez, asko aldatu dira gauzak 2014tik 2020ra?

Badoaz aldatzen, baina oraindik ere ume baten heriotza ez dago onartuta, ez dago ondo ikusita, ez da logikoa. Ondorioz, ezkutatu egiten da. Nik kontatzeko beharra sentitu nuen, eta horrek asko lagundu zidan. Aldi berean, gaia gizarteratu nahi nuen.

### - Eta duela gutxi Esku Hutsik elkarte sortu da, ezta?

Bai, aurtengo martxoan. Aurretik, ama talde bat Bilbon biltzen ginen hilero, esperientziak partekatzeko. Taldea gero eta handiagoa zen, eta taldekide batzuk proposatu zuten elkarte sortzea.

### - Zeintzuk dira bere helburuak?

Alde batetik, haurdunaldiko edozein momentutan edo jaio eta egun batzuetara hiltzen diren umeen familiei laguntzea eta informazioa ematea. Bestalde, ospitaleekin elkarlanean dihardu, protokoloak sortzeko, formazioa emateko, oroitzapen kaxak bateratzeko...

### - Kide berriei zabalik dago?

Bai, jakina. Seme-alaben inguruko albiste txarrak jasotzen dutenek babesa jasoko dute elkartearen (722 82 20 39 / eskuhutsik@gmail.com).

Dorleta Vidal

CAPRI  
PIZZERIA  
943 03 33 15

IZASKUN TXURRUKA

Goienkale 9 Bajo  
48260 Ermua Bizkaia  
94 317 66 90  
peluqueriaizaskun@gmail.com  
peluqueriaizaskun.wordpress.com

RIF  
ITURGINTZA  
KONPONKETAK  
Marques de Valdespina 16  
ERMUA  
605 71 10 81 / 688 71 27 10

Alba Mazo, ama:

## "Alabari buruz hitz egiterakoan liberatu egiten naiz"

Haurdunaldiko azken txanpan zegoen Alba Mazo ermuarra bere alabaren bihotza gelditu zenean. Ezbehar horren atzetik zetorrena ez zen samurragoa izan: erditu eta ospitaletik esku hutsik joan behar izatea. Ordutik ez da urtebete igaro, baina ospitaleko langileek eskainitako laguntza, babesa eta baliabideak oso lagungarriak izan ditu Albak bidean aurrera egiteko.

- Hilabeteak baino ez dira igaro alaba txikia joan zenetik...

Bai, iazko abenduaren 23an, haurdunaldiko 38. astean, konturatu nintzen Libe alaba ez nuela sabelean sentitzen. Urduri jarri nintzen eta Mendarora joan ginen. Kotxean gindoa zela nik banekien zer gertatzen zen, eta ginekologoak berehala esan zigun Libek ez zeukala taupadarik. Hor hasi zen gure amesgaiztoa. Bizitzan gertatu zaidan gauzarik gogorrena izan da, guztiz antinatura.

- Gogoan duzu zer sentitu zenuen momentu hartan?

Ez nintzen negar egiteko gai izan, blokeatuta nengoen, shock egoeran. Gero negar, negar eta negar egin nuen, izugarrizko tristura neukan. Amorrurik handia ere sentitu nuen, eta umearekin haserre nengoen: "Zergatik egin didazu hau?", galdetzen nion.

- Zuen senideei esatea ez zen erraza izango...

Ez, berehala deitu genien gurasoei eta momentu hartan lau urte zituen gure beste alabari ere, Pauleri. Bere ahizpa eza-

gutzeko eta agurtzeko aukera eskaini genion, eta baietz esan zuen.

- Osasun zerbitzuei dagokierenez, zerbaiten falta sumatu zenuen momentu hartan?

Ez, ez daukat inolako kexarik. Ez dagoenez protokolorik ezarrita, aurrean daukazun profesionalek gidatzen zaituzte, eta nik zorte handia izan nuen, oso enpatikoak izan zirelako. Oso eskertuta nago, maitasun handiarekin tratatu gintuztelako.

- Eurek azaldu zizkizuten eman beharreko pausoak?

Bai, haiek gomendatu zidaten guztia egin nuen, itsu-itsuan: umea besoetan hartu, argazkiak atera... Beldurra neukan, eta une gogorra izan zen, baina gauzak horrela egiteak asko lagundu digu doluan.

- Eta etxera heltzean...

Orduan etorri zen gogorrena. Ospitaletik umearekin irtengo zarena imajinatzen duzu, baina hutsik irteten zara, etxean dena prest izan arren: sehaska, arropak, logela... Eta horrez gain umerik gabeko erdiondoko igaro behar duzu.



Alba eta bere bikotekidea, Paule alabarekin. Arg.: Nerea Garaizar.

- Nola egin zenion aurre egoerari honi?

Laguntza eskatu nuen. Ospitaleko psikologoarekin txanda eman zidaten, eta egun ere terapian jarraitzen dut. Horrez gain asko irakurri dut gai honen inguruan. Dagoeneko mina leuntzen hasi da eta, egun txarrak ditudan arren, honekin bizitzen ikasten hasi naiz. Onartzea kostatzen zaidan arren, ni ez naiz berriro izango lehen nintzen pertsona: beste Alba bat naiz, beste bizipen batzuekin.

- Heriotza perinatala oso ohikoa den arren, gai honetaz hitz egiten da?

Ez, tabua da. Nik ez dut arazorik izan hasieratik kontatzeko, baina orain arte jende gehienak ezkutatu izan du. Gizartea ez dago batere sentsibilizaturata, jendeak ez daki zer esan, eta egia da ez dela erraza hitz egokiak topatzea, baina askotan nahikoa da besarkada bat ematea. Komentario batzuk

min handia ematen dute, asmo txarrik gabe esaten badira ere.

- Isilean eraman ohi bada, zergatik erabaki zenuen kontatzea?

Heriotza bizitzaren zati bat delako, eta era naturalean eraman behar da. Liberazioa sentitzen dut Liberi buruz hitz egiterakoan, nire alaba da, eta gustatzen zait, iruditzen zait horrela omenaldia egiten diodala. Gainera, uste dut egoera berdinean dauden gurasoei ondo etor dakiekeela entzutea.

- Duela gutxi Esku Hutsik elkartearen izena eman zenuen. Zer dela-eta?

Beste familia batzuk ezagutzeko beharra sentitu nuen, bakarrak ez garela ikusi. Aldi berean, nire esperientzia partekatuta beste batzuei lagundu nahi nien. Elkarrekin lan handia egiten du gai hau bistaratzen, eta iruditzen zait oso garrantzitsua dela berau gizarteratzea.

Dorleta Vidal



Eskuz egindako  
terapietan adituak

**ARTROS**  
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua  
617 680 156  
www.artrosermua.com

**Udal Euskaltegia**  
Teresa Murga Eraikina  
Goienkale z/g 2. solairua  
ERMUA · 943 170 925  
ermukoudaleuskaltegia@gmail.com

## KISKA TABERNAK IRABAZI DU AURTENGO PINTXO LEHIAKETA

Urriaren 28tik azaroaren 7ra bitartean burutu zen aurtengo pintxo lehiaketa, XXI. Jardunaldi Gastronomikoen baitan, eta Kiska tabernak bi sari eskuratu zituen: epaimahai teknikoarena eta herritarrena, "Singapur" pintxoarekin (brioche-opilaz, hirugiharraz eta ozpin-olioaz kozinatutakoa). Ermuko Udaleko webgunean irakurri daitekeenez, Sagarra tabernako "pulet pork" mokaduak jaso zuen bigarren saria, eta Km 0 saria Giroa tabernako "oilaski" k jaso zuen. Pintxo tradizionalaren kategorian, Urkaregi jatetxeko "Gilda" k jaso zuen saria. Epaimahaiak aipamen berezia egin zion Amatxi tabernako pintxoari, bertako produktuaren erabilera ona egin izanagatik.

## Bihar eta berandu diskoaren 30 urteurrena ospatzeko jardunaldiak antolatu dira

Julio Kagetaren *Bihar eta berandu* diskoak 30 urte beteko ditu abenduan, eta horren harira hainbat ekintza antolatu dituzte Zitzada taldeak, Infreñu tabernak eta Eskilarapekok, Julio Kagetako kideen laguntzarekin. Abenduaren 13tik 23ra erakusketa interaktiboa egongo da Infreñun. Hilaren 15ean, asteazkena, Berri Txarrak taldeko "Dardara" dokumentala ikusteko aukera egongo da Eskilarapekon, 19:00etan. Azkenik, 22an, asteazkena, mahai-ingurua egingo da leku berean, "Punk rocka euskaraz 80. hamarkadatik" izenburupean. Bertan parte hartuko dute Berriako kazetaria den Gotzon Hermsillak, Julio Kagetako kide ohiak diren Juanmi Bravok eta Iker Saenz de Zaitegik, eta musikan aditua den Juantxo Diezek. Mahai-ingurua 19:00etan hasiko da.



## Nesken frontenis maratonia jokatu zen Mallabian

Urriko azken asteburuan burutu zen emakumeen frontenis txapelketa. Larunbatean, urriak 30, Errioxako Lorena Barronek irabazi zuen txapela, Salamancako Ana Garciari 12-8 irabazi eta gero. Bi jokalarik hauek bikoteka jokatu zuten hurrengo eguneko finala, eta Inge Sancristobal gueñestarra eta Laura Saez gasteiztarra mendean hartu zituzten. Antolatzaileen arabera, estatuko iparraldeko jokalaririk onenek parte hartu zuten txapelketa honetan.



# FEREDU SOLUTIONS S.L.



- \* HEZETASUNAK
- \* ERREHABILITAZIOA
- \* INPERMEABILIZAZIOAK
- \* MANTENIMENDUAK
- \* IGOGAILUAK
- \* ERREFORMAK
- \* FATXADAK
- \* ITE
- \* TEILATUAK
- \* GARBIKETAK

[www.feredusolutions.com](http://www.feredusolutions.com)  
699 476 112 / 946 423 649 ERMUA



# XXVI. San Martin Azoka



Euskal Birusa Elkarteak antolatua.  
Argazkiak: Maddy Goikoetxea eta Dorleta Vidal.



 **DANOBTGROUP**

 **euskaraz  
IZANGO  
GARA**

HARTU PARTE DANOBTGROUP-EN  
**EUSKARAREN EGUNeko  
LEHIAKETAN!**



Sartu lehiaketako estekan, erantzun galdera eta irabazi gau berezi bat 2 lagunentzat Bizkaiko zuhaitz-etxe batean.

[info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html](http://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html)

**Parte hartzeko azken eguna:** 2021eko AZAROAK 30 | 00:00

 **DANOBTGROUP / DANOBT / GOIMEK / GOITI / IDEKO / LATZ / SORALUCE** 





**hanigan's**  
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik  
Asteburu eta jaiegunetan,  
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527

**ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA**

**PALACIOS SM**

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA  
GREMIOEN KUDEAKETA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26, behea - Ermua (Bizkaia)  
info@palaciosfontaneria.com / www.palaciosfontaneria.com

**660 72 95 03 • 659 75 74 59 • 943 53 92 23**

*Bisni danda Talde propioa Erlejudanda*

**Senén**  
1978

*Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte*

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA  
www.joyarisenen.com • joyarisenen@gmail.com

**LEIRE RASCO**  
BIZARTEGIA  
ILEAPAINDEGIA  
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER

C/GOIKALE NS  
ERMUA (BIZKAIA)

**DG Horacio Decoración**

VI Centenario 10 - Ermua  
943 03 15 80  
www.dghoraciodecoracion.com

TAJERERIA - ALIZARIAK - OSAGIARRIAK





**Egin zure kontsulta.**

Formularioa betetzen laguntzen zaitugu  
943 82 01 10

 <b>Berokuntza</b>	 <b>Etxetresna elektrikoak</b>	 <b>Ingurutzaila termikoa</b>	 <b>Argiztapena</b>
 <b>Eguzki-energia fotovoltaikoa</b>	 <b>Eguzki-energia termikoa</b>	 <b>Aerotermita</b>	 <b>Biomasa</b>
 <b>Geotermia</b>	 <b>Faktura elektrikoak</b>		



**Energia bulego birtuala**  
[energia.debegesa.eus](http://energia.debegesa.eus)



**TALOGINTZA:** Maritxu Etxebarria/ Maitasun Idigoras/ Marijose Goiogana/ Maddi Goikoe-  
txea/ Mari Karmen Urkidi/ Xabier Urkidi/ Jokin Txapartegi/ Arrate Maguregi/ Souad  
Belauj/ Amelia González/ Ziortza Zelaia-Zugadi/ Miren Bego Ugena/ Haizea Manso/  
Nahiara Gallastegi/ Lorea Txapartegi/ Irune Yarza/ Rosa Jaussi/ Pili Alvarez/ Mari  
Carmen Allende/ Irune Aranberria/ Maite Askasibar/ Xabi Goikoetxea/ Naiatze  
Yantzi/ Maïttane Pagoaga/ Nerea Eizagirre/ Malen Eizagirre/ Oihane Vega/ Leire  
Gorritxategi/ Bea Palacios/ Iñigo de la Peña/ Javier de la Peña/ Aitor Arrizabala-  
ga/ Ander Prol/ Josu Gómez/ Maitane Millán/ Antxon Izagirre/ Luken Aranburu/ Unai  
Txurruka/ Ainara Riveras/ Maitane Mugerza/ Libe Solozabal/ Paule Gorritxategi/ Iratxe  
Odriozola/ Lidia Jiménez/ Andrea Díez/ Víctor Lamas/ Maialen Arrizabalaga/ Maialen Ugena/ Maddi  
Rodríguez/ Nerea Mugarza/ Libe Areitioaurtena/ Leire de la Peña/ Maren Unanue/ Oier Araiztegi/ Izaro Fuentes/ Izaro Areitioaurtena/ Urko Murua/  
Intza Alberdi/ Maia Mancisidor. **TXIKURIXAK:** Alberto Belar/ Julen Berriozabal/ Antxon Ziarsolo/ Arantxi Perosanz/ José Antonio Martínez Carbajo/  
Eli Areitioaurtena/ Juanjo Gorritxategi/ Natalia Arrieta/ Rikar Txabarri/ Elias Uriarte/ Begoña Infante/ David Gómez/ Nerea Iriondo/ Paul Yarza/  
David Elejalde/ Eneko Goikoetxea/ Aitor Jauregi/ Esther Larreategi/ Alex Alvarez/ Jokin Díez/ Txomin Espilla/ Toñi Montero/ Eneritz Arriaga/  
Azucena Vallecillo/ Eukene Lamariano/ Tomas O´Callaghan/ Danel O´Callaghan/ Rober González/ Ines Arano/ Ekaitz Amezcua/ Aitor Garitagoi-  
tia/ Manex Olaizola/ Alaitz Fernández/ June Madariaga/ Ainhoa Lista. **MUNTAIA / DESMUNTAIA:** Jose Santos/ Juanjo Solozabal/ Jabi Vidal/ Aitor  
Arriaga/ Josu Garitagoitia/ Fernando Aranberri/ Ramón Redondo/ Koldo Aranberria/ Amaia Arginzoniz/ Edurne Abellanal/ Juancar Cadavid/ Aitor  
Ogiza/ Eneritz Arriaga/ Fran Carrascosa/ Alvaro Ortiz de Urbina/ Ainara Riveras/ Iker Aranda/ Jon Larrañaga/ Paulo Guridi/ Alex Pagaldai/ Manex  
González/ Josu Cuadrado/ Danel O´Callaghan/ Ian Martin/ Unai Ferreras/ Iker Gómez/ Julen Castro/ Martxel Carrascosa/ Xarles Araiztegi/ Xabi  
Ugena/ Peru Blanco/ Irati Garitagoitia/ Libe Garitagoitia/ Peio López. **TIKETAK ETA KARTELAK:** Idoia Narbaiza/ Yolanda Unamuno/ M<sup>a</sup> Angeles  
Landaarroitajauregi/ Patxi Goitandia/ -Marga Pérez/ Juantxo Díez/ Ramón Redondo/ Aitzol Redondo. **KALABAZA-PORRA:** Asier Madarieta/ Mikel  
Madarieta/ Jokin Aranburu/ Danel Gorritxategi/ Amaia Sangroniz/ Paule Gorritxategi. **SAIHESKIA:** Oier Egaña/ Alicia Moreno/ Alex Idigoras/ Ain-  
tzane Plaza/ Gorka Elgea/ Iñaki Bidosola/ Egoitz Gerrikabeitia/ Julen Sololuze/ Mariano Casado/ Jesús Gómez/ Manolo González/ José Antonio  
Lejardi. **BURUKO ZAPIAK:** Mari Karmen Urkidi. **UDALAK / ERAKUNDEAK:** Ermuko Udala/ Udaleko Kultura eta Euskara Sailak/ Udaleko Brigada/  
Udaltzaingoa/ Mallabiko Udala/ Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila. **EPAIMAHAIKIDEAK:** Joseinas Larrañaga / Arri Araiztegi/ Nahia Ruiz/ Almu  
Maeso. **ERRIFAK:** Marisabel Garitagoitia/ Angel Bravo/ Ramón Redondo/ Jone Redondo/ Aitzol Redondo/ Anboto eta Urreta burdindegia/ Beta  
elektrizitate-denda/ Solozabal estankoa/ Amaia Urkizu eta Miguel harategiak/ MT ile-apaindegia/ Kokko, Idoia, Sehiga eta Quetzal jantzi-dendak/  
Gauzak mertzeria/ Sagardui poltsa-denda/ Batzokia, Déjate Querer, Giroa, Hanigan's, Herga, Infreñu, Karabixa, Karikato, London, Plan B, Sagarra,  
Secretos, Sorgin, Titanic, Torrekua, Txalaparta, Txantxiku, Xagua, Yomy, Zabal eta Zutabe tabernak. **ERAKUSLEIHO LEHIAKETA:** Senen bitxi-denda/  
Anboto eta Urreta burdindegia/ Arrieta elektrogailuak/ Beta eta Egolek elektrizitate-dendak/ Solozabal estankoa/ Elur estetika zentroa/ Argintxu  
gozo-denda/ Miguel eta Danotz harategiak/ Irale hortz-klinika/ Ainner, Enaia, Leire Rasco, Mado's eta Marfil ile-apaindegia/ Cocoliso, Kokko,  
Ramos, Sehiga eta Quetzal jantzi-dendak/ Gauzak eta Guipur mertzeriak/ Xiripot liburu-denda/ Mariasun loradenda/ Procolor margo-denda/  
Alboka Musika Eskola/ Zapatziki zapata-denda/ Arriaundi okindegia/ Artarrai opari-denda/ Itze optika/ Orbe pertsianak/ Sagardui poltsa-denda/  
Hannigan's eta Karabixa tabernak/ Maybe urdaitegia. **BESTELAKOAK:** Lucia Aldalur/ Mari Feli Manzidor/ Txema Araiztegi/ Iñigo Pro/ David Gomez/  
Alberto Arginzoniz/ Laura Olabe/ Higinia Solozabal/ Anittu-goiko baserria. **TALDEAK:** Euskal Birusa Elkarte Kulturala/ Kaltxango AEK Euskaltegia/  
Antxitxiketan Aisialdi Taldea/ Alboka Musika Eskola/ Txindurri Txistu eta Dantza Taldea. **TALDE ERAGILEA:** Igone Amesti/ Gaizka Areitioaurtena/  
Araitz Barruetabeña/ Naroa Beitia/ Nerea Berriozabal/ Piedi Eizagirre/ Nagore Espilla/ Eider Gisasola/ Estibalitz González/ Asier Ibaibarriaga/  
Joseinas Larrañaga/ Aroia Lejardi/ Manuel Moreno/ Unai Rodríguez/ Eli Txurruka/ Marines Txurruka/ Rodol Ugena/ Tere Uriarte/ Dorleta Vidal.

**Ez da magia, herrilana da!**

Laguntzaileak:

191 herritar.

12 erakunde eta talde.

71 denda eta taberna.

Guztion artekoak egin du posible aurtengo!

Guztioi eta gerturatutako milaka ikusleei,  
miloi bat esker!

## SAN MARTIN AZOKAKO SARIAK

Epaimahai honek aukeratu ditu aurtengo San Martin Azokako sarituak: Bizkaiko Erlezain Elkarteko Jose Benito Beobidek, Idiazabal Gazta-Izendapeneko Bittor Rodríguezek, Mendi Nekazaritza Elkarteko Juan Mari Totorikak, Euskal Biruseko Asier Ibaibarriagak, herriko ordezkaria izan den Joseinas Larrañagak eta Ermuko Udaleko Arri Araiztegik.

### FRUTA ETA ORTUARIAK

1. saria: M<sup>a</sup> Pilar Mallabia (Agarre-Mallabia)
2. saria: Jose Antonio Fernández (Buenos Aires-Ermua)

### GAZTA

1. saria: Patxi Baskaran (Santa Marina-Markina)
2. saria: Eñaut Gallastegi (Onandi-Mallabia)

### OGIA

1. saria: Xiber Uriarte (Zeanuri)

### EZTIA

Txilar ezitia: Igor Merino (Barakaldo)  
Mila-lore ezitia: Garikoitz Llona (Zornotza)

### SAGARDOA

1. saria: Unai Bilbao (Zornotza)

### TXAKOLINA

1. saria: Jose Antonio Bilbao (Axpe-Markina)

### AIPAMEN BEREZIA

Arantza Zubia (Agarre-Mallabia)



Joseinas Larrañaga, epaimahaikidea:

### “Esperientzia positiboa izan da”



Joseinas Larrañaga ermuarra San Martin Azokako animalien ardura izaten du, eta aurten herriko ordezkaria izan da azokako epaimahaian.  
- Zelan hartu zenuen epaimahaikide izateko proposamena?

Ondo, pozik hartu nuen.

- Zeintzuk izan ziren zure eginbeharrak epaimahaikide bezala?

Baloratu behar genituen produktuak batu, azokako postu guztiak ikusi, adituen azalpenak entzun, produktuak dastatu eta sari banaketa egin genuen. Lau ordu inguru egon ginen batuta.

- Zer produktu dastatu zenituzten?

Gazta, ezitia, ogia, sagardoa eta txakolina.

- Zerbait ikasteko aukerarik izan zenuen?

Bai, gauzei gustua hartzen diegu denok, baina ez dakizu zergatik daukaten zapora hori, eta azalpenak interesgarriak iruditu zitzaizkidan.

- Nola baloratzen duzu esperientzia?

Positiboa, gomendagarria; gustura hartzeko moduko gauza da.

## ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

1. saria: Anboto burdindegia. Epaimahaiak baloratu du erakusleiho osoa betetzen jakin dutela, atze egokia jarritz eta ondo argiztatuz, urrunetik ere bertaratzeko gonbitea eginez pasoa doazenei.



2. saria: Orbe pertsianak. Epaimahaiak baloratu du erakusleiho txikiak izanda lan polita egin dutela, biak ala biak txukun eta harmoniko aurkeztuz.

## TXERRIAREN ERRIFA

1. saria, 400 €: 4034.

Irabazlea: Mati Argüello (argazkian).

2. saria, landetxe batean asteburupasa bi lagunentzat: 980. Erreserba: 3001.



**Zentzuz erosi.**  
**Ondo informatu zaitez.**  
**Ezagutu zure eskubideak.**  
**Baztertu estereotipoak.**

**Zeuzara**  
**zure *influencer* onena.**  
**#KontsumitzenJakin**

**kontsumoBIDE**  
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA  
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

*Euskadi, auzolana*

ELISKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO  
EUSKAL LEGIARITZA GOBIERNO VASCO



# Aurten baDa azoka

Abenduaren 3tik 8ra egingo da Durangoko Azokaren 56. edizioa; aurrez aurreko 220 stand eta online denda uztartuko ditu, 'baDA!' lelopean. Leire Urbeltz sortzaile iruindarrak egin du aurtengo kartela, 'Desipuindegia' izenburupean. Urbeltzek Azokako lehenengo edizioak izan ditu gogoan, garai horretako irudien *revivalismoa* eginez.



|| Aurten Azokarik bada? Askok egin digute galdera.

Bai noski, baDA!\*, iragarri du Gerediagako presidente Nerea Mujikak Durangoko Landakogunean egindako prentsaurrekoan. Bertan jakinarazi duenez, aurten, azoka presentziala eta digitala izango da; 220 erakusmahai baino gehiago egongo dira aurrez aurre abenduaren 4tik 8ra, eta online denda martxan egongo da abenduaren 3tik 7ra *durangokoazoka.eus* webgunean.

Mujikak azpimarratu duenez, edizio honetan "itzuliko dira erakusmahaiak, itzuliko dira korridoreak, Ahotsenea, Irudienea, Kabi@, Saguganbara eta Szenatokia, eta itzuliko dira sortzaileak, argitaletxeak, diskoetxeak, zein autoekoizleak; eta, nola ez, kulturzaleak. Beraz, bada Azoka. Eta zelako Azoka!\*



## 50 kontzertu Plateruengan

Kontzertuei dagokienez, antolakuntzak iragarri berri du Ahotsenean 50 kontzertu eskainiko dituztela eta emanaldi guztiak Plateruengan izango direla, 11.00etatik 22.00etara bitartean. Sarrera doakoa izango da eta ez da beharrezkoa izango aldeztatik izena ematea. Horrekin batera, jakinarazi dute Ahotseneako zuzenekoak zein Azokako Areto Nagusiko ekitaldiak

webgunean ere jarraitu ahal izango direla *streaming* bidez.

Musika ez ezik, Durangoko Azokak diziplina askotariko egitaraua berreskuratuko du aurten: solasaldiak, proiektzioak, arte eszenikoak, umeentzako ikuskizunak, ekitaldiak...

Debabarreneko Komunikazio Taldeak (DKT) jasotako informazioaren arabera, aurten, bailarako idazle, musikari eta argitaletxeek ondutako 23 liburu eta disko baino gehiago izango dira azokan; tartean, eleberririk, poema liburuak, album ilustratu bat, itzulpenak, eta baita rock, folk eta jazz diskoak ere. Ondoko orrialdean dituzu horietako zenbait ale.

DKT: Drogeteniturri (Ermua, Mallabia), ...eta kittol! (Eibar), Pil-pilean (Soraluze), Barren (Elgoibar, Mendaro) eta Berriketan (Deba).

## DEBABARRENEKO UZTA

### DEBA-ITZIAR

- Nerea Loiola Pikaza: *Epizentroa* (Erein argitaletxea).  
Liburuaren aurkezpena: Abenduak 4 (larunbata), 17:00etan, azokan bertan.
- Goizane Aizpurua Ibañez: *Izarak* (Alberdania argitaletxea).
- Iñigo Lopez Simon: *Bilboko etxola batean* (Elkar argitaletxea). Debako Udalak eta Elkarrek antolatutako Tene Mujika bekaren fruitua da liburua.
- McOnak taldea: *Bitakora* (Mauka Musikagintza).  
Abenduaren 6an Ahotsenea gunean (Plateruena) kontzertua.
- Huntza taldea: *Ezin ezer espero* (Mauka Musikagintza).

### EIBAR

- Su Ta Gar: *Sua komikia* (Alex Tello eta Julen Ribas).
- Ibon Muñoa: *Gure Ama-Lur feminista da* (Ataramiñe)
- Bixente Martinez: *Txoriak buruan eta ibili munduan*. Abenduaren 6an, Ahotsenean.

### ELGOIBAR

- Jasone Osoro: *Asteburu bat eskiatzen* (Goazen saila, Alai), *New York, New York!* (Goazen saila, Alai) eta *Festa* (Elkar).
- Uxue Alberdi: *HILI, album ilustratua* (Elkar).
- Danele Sarriugarte: *Walden* (Henry David Thoreau autorearen lanaren itzulpena, Katakarak) eta *Kapitalaren lan-tegi ezkutua* (Nancy Fraser filosofo estatubatuarren lanaren itzulpena, beste hiru itzultzaileekin elkarlanean, Susa).
- Ander Mujika: *Orain entzungo duzun hau* (Bidehuts). Anariren diskoan kolaboratu du.

### ERMUA + MALLABIA

- Txabi Arnal: *Berta Berezi* (Erein argitaletxea) eta *Tatxani handiaren azken trukoa* (Elkar argitaletxea).

### SORALUZE

- Ansorena & Senperena: *Euskal Danbolinaren Aroak* (Gaztelupeko Hotsak).
- Gorka Gaztanbide: *Txikizio kuadrilla* (Gaztelupeko Hotsak).
- Juan De Diego: *Grebalariak* (Errabal Jazz).
- Noa Lur, Ander Garcia: *Gaur* (Errabal Jazz).
- Aldapeko Basque Latin jazz: *Iri barrenetik* (Errabal Jazz).
- Plana, Forts, Viñolas: *Nuclí Trio* (Errabal Jazz).
- Jon Urrutia: *Piano Solo* (Errabal Jazz).



**GORKA GONZÁLEZ  
ERMUARRAK ILUSTRATU  
DU ZUKALDATUREN  
EGUTEGIA**



Sasoian sasoiko ortuari eta frutez gain, zuhaitz, mendi, baserriko lanabes edota animalietan oinarritutako egutegia sortu du Gorka González artista muralistak. Zukaldatu elkarteak kaleratutako lan koloretsu hau, ordenagailu bidezko Photoshop programaren bidez osatu du: argazki errealak erabiliz, konposaketa desberdinak egin ditu, argi, itzal eta koloreekin jolastuz. Herriko artista baten lana ezagutzera emateaz gain, taldearen proiektua bultzatzea du helburu ekimenek honek. 200 ale egin dira eta 6 euroren truk daude eskuragarri Infreñu tabernan, Idoia Goikoetxearen bi dendetan eta Zukaldatun bertan.

## Danobatgroupek Euskararen Egunarekin lotutako lehiaketa antolatu du

“Euskaraz izango gara” lemapean kaleratu du aurten ere Danobatgroup Kooperatiba Taldeak enpresak dituen herrietara zabaldutako lehiaketa, Euskararen Nazioarteko Egunaren harira. Ariketa honek euskararen inguruan hausnarketa bideratuko du, eta parte hartu nahi dutenek hurrengo helbidera jo beharko dute: <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2021.html>. Azaroaren 30era arteko epea izango da lehiaketan parte hartzeko, eta abenduaren 3an jakinaraziko da irabazlearen izena. Berauk aukera izango du Bizkaiko zuhaitz-etxe batean gau bat igartzeko. Danobatgroup Industria Taldea espezializatuta dago makina-erreminten fabrikazioan, balio erantsi handiko osagaien fabrikaziorako garapenetan, giltza eskura erako ekoizpen sistemetan eta zerbitzu teknologikoki aurreratuetan; eta Danobatgroup kooperatibaz gain Danobat, Goiti, Soraluze, Goimek, Latz eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea. Taldeko enpresak kokatuta dauden ingurune soziolinguistikoari erreparatuta, euskarak arlo guztietan presentzia izateari ematen diote garrantzia azken urteotan. Horren adierazgarri euskararen erabilera bultzatzeko dituzten planak, eta lortutako eta lortzeko bidean dauden Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

## Elkartasun eta Lankidetzaren Kontseiluaren liburu eta dokumentala aurkeztuko dira

“20 urte. Elkartasunean lan eta lan” izenburupean, Ermuko Elkartasun eta Lankidetzaren Kontseiluaren bultzadaz egindako ekintzak biltzen dituen liburu eta dokumentala aurkeztuko dira Lobiano Kulturguneko auditorioan. Hitzordua azaroaren 27an izango da, 10:00etan hasi eta ekitaldiaren 13:00etako itxiera arte. Hasteko Juan Hernandezen hitzaldia, dokumentalaren proiektzioa gero eta ondoren kafea eta tertulia berorren egileekin: Ander Prol eta Kepa Gerrikabeitia.



Entzumenaren doako azterketak  
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 51

solozabal  
tabakoak

torrekua 1  
tel./fax: 943 17 07 33



**Caperos**

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitarakoak  
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA \* ESTETIKA  
EDERTASUNA**

*Marfil*

*Ile-apandegi bat  
baino gehiago!!*



Egokitutako burua  
garbitzeko konketa

943 17 28 09 • Goienkale 12



## Mendi irteera Mendibilera



Ermua BHIko lehenengo mailako ikasleek Gorputz Heziketa mintegiak antolatutako mendi irteera zoragarri bat egin genuen urriko ostiral eguzki-

tsu batean. Herriko plazatik 8:30ak inguruan atera eta ttipi-ttapa Mendibil mendira abiatu ginen.

Hasiera batean hotz zegoen, baina orduak pasa ahala tenperatura gero eta goxoagoa zen. Erreka bazterretik igo eta errepidetik jaitsi ginen. Sasoiaren geundenez oso azkar igo ginen mendi tontorrera, nahiz eta igoerak hainbat zailtasun eduki, bereziki lokatza eta ura (erreka

inguruak zeharkatzean). Baina, zailtasun hauek xarma ematen zioten ibilbideari.

Mendi puntan ogitartekoa jan eta bertan zeuden ikuspegi liluragarriez gozatu genuen. Bizkaia eta Gipuzkoako mendi gehienak ikusten dira bertatik. 14:00ak inguruan herrian geunden poz-pozik, goiz ederraz gozatu genuelako. Denok errepikatzeke gogoarekin gelditu ginen.

## Pasaiaiko Albaola faktoriara irteera

Ermuko BHIko lehenengo mailako ikasleek Teknologia mintegiak antolaturiko irteera egin genuen Pasaiaiko Albaola Itsas Kultur Faktoriara. Autobusak Pasai San Pedroko erdigunean utzi gintuen, Trintxerpen hain zuzen ere. Honi esker ibilbide zoragarria egiteko aukera izan genuen Faktoriarako bidean, Pasai San Pedroko kaleak eta itsas adarra ezagutzeko. Faktorian sartzeko bi txanda egin genituen. Barrura sartzen ez zirenak Donostiara daraman Santiago bidea egiteko aukera izan zuten. Fama handiko ibilbidea da hau, erromesek, mendizaleek eta senderistek egiten dutena, hain zuzen ere, "Ruta Faro de la Plata". Museo barruan Albaola Elkarteak XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplika zientifikoa ikusteko aukera izan genuen, besteak beste. Goiz zoragarria igaro genuen!

## Padel surf eta surfa Deban

Ermuko BHIko bigarren mailako ikasleek Gorputz Heziketa mintegiak antolatutako ekintza berezi bat egin genuen Deban urriko bi ostiral goiz desberdinetan. Lehenengo txandan bi talde joan ginen eta bigarrenen beste bi. Egun bietan izugarri gozatu genuen ekintzarekin.



Lehenengo txandan eguzki zoragarria izan genuen, baina olaturik ez. Orduan, surfa ez ezik padel surf ere egin genuen. Bigarren txandan lainotuta eta euri pixka bat egin zigun, baina olatu ezin hobeak izan genituen jarduerarako. Egun bietan padel eta surfa egin ez ezik beste ekintza batzuk ere egiteko denbora izan

genuen: Debako herria ezagutu eta hondartzan zein herriko frontoian jolas desberdinak egin. Tren geltokitik oso goiz atera ginen, zortzietako trenean. Egun bietan freskotxo egin arren lehenengo orduetan itsasoko uraren tenperatura oso ona zen. Ikasle batzuk neoprenoa kendu eta, bainujantzia aldean, uretan murgildu ziren. Bueltako trena hartu aurretik, 13:00ak aldera, ogitartekoa jan genuen. Ostiral bietan ezin hobeto pasa genuen ekintza desberdin bat egin genuelako eskolatik kanpo. Ikasle guztiok horrelako ekintza bat noiz errepikatuko genuen galdetzen genuen.

Zure  
publizitatea:

**DROGETEN** ITURRI

Ermuko eta Mallabiko herri-aldizkaria

943 179350 / 688 632876  
drogeten@gmail.com

**KRABI**

Ileapaindegia  
Estetika

Tel: 943 03 17 56

Diputazio, 5

ERMUA

Zuri egokitzen den odontologia  
La odontologia que se adapta a ti

Dr. OLATZ GARCIA ARREGUI C.O. nº 1294

943 17 04 04  
info@clincasanelaya.com

San Pelayo Zeharkalea 5  
48260 Ermua (Bizkaia)

P.A.D.I.  
- IMQ  
- SANITAS  
- DENTYRED  
- AZKARAN  
- OCASO

**quetzal**  
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiurre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065  
www.quetzalmoda.com

ileapaindegia  
**Silvia**  
peluqueria

Asteartetik ostiralera  
9:00-12:00 15:00-19:00  
Larunbata  
8:30-13:00

943 170474

688819336

# Aurreiritziak

**M**undua anitza da eta pertsona bakoitza ezberdina da. Eskema mentalek hori islatzen dute, norberak duen pentsatzeko eta mundua ikusteko modua baitira. Hazten goazen heinean eskema hauek eraikitzen goaz. Antzeman eta bizi izan dugunaren ondorioz inguruari buruzko ideiak sortzen ditugu.

Modu inkontzientean eratzen ditugure burmuinak eskema hauek. Mundua konplexua da eta gure ingurua ulertzeko beharra daukagu. Estimuluz inguratuta bizi gara eta gure burmuinaren berezko lana informazio hori prozesatzea eta sinplifikatzea da. Gainestimulazio horrek erabakiak modu azkarrean hartzea garamatza, hausnarketarik egin gabe.

Aurreiritziak, horrela, pertsona edota talde bati buruz aurrez eraikitzen ditugun ideiak dira. Hau da, ez ditugu ikaskuntza prozesu baten ondorioz sortzen, eskema mentalek ez bezala. Talde edo pertsona bat ezagutu aurretik sortzen ditugun ideiak dira. Eta sinesmen hauek kanpo estimulu horiek azkar prozesatzearen ondorio dira.

Idea sinplifikatu horien harira, estereotipoak sortzen ditugu. Pertsona edo talde baten ezaugarri buruzko sinesmen zabalduak dira estereotipoak. Ideia hauek ez dira guztiz faltsuak, baina informazio osatugabea dira. Kolektibo baten inguruan orokortua eta onartua dagoen irudia dira.

Uste hauek deseraikitzeak orain arte eraikitako sinesmenak zalantzan



*Libe Solozabal*

jartzea dakar. Hala, hausnarketa eta enpatia prozesuak burmuinarentzako nekagarriagoak dira, lan gehiago eskatzen dute. Beraz, esfortzua saiheste aldera, pertsona edo taldeak kategorizatze joera daukagu.

Hala ere, pentsamenduak dinamikoak dira. Esperientziek eta ikaskuntza berriek gure usteak aldatzeko gaitasuna dute. Arrazonamendua eta pentsamendua denok ditugun trebetasunak dira. Gutxi batzuek jartzen dute martxan, ordea, pentsamendu kritikoaren ahalmena. Pentsamendu kritikoa ikasitakoa zalantzan jartzeko gaitasuna da, ikuspuntu ezberdinak kontrastatzen jakitea eta nork bere kabuz egindako hausnarketan bidez iritzi propioa izatea.

Besterik gabe, pertsona bakoitza ezberdina da eta mundua anitza da.

“ Gainestimulazioak erabakiak modu azkarrean hartzea garamatza, hausnarketarik egin gabe ”

Komunitateak

**San Pelayo**

Aholkularitza juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04  
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**OINAK**

LEIRE MAYORA

**PODOLOGOA**

Erdikokale 1, 1. A  
48260 Ermua  
© 943 17 47 44

**NEREA IÑIGUEZ HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / niklinika@gmail.com

**ARRIETA CORDEVI**

Etxetresna elektrikoak, telebistak, musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA

**Kopi-Fax**

FOTOKOPIAK  
KOLOREZKO FOTOKOPIAK  
HANDIPENAK - TXIKIPENAK  
PLANOAK - AZALEZTAPENAK  
FAX PUBLIKOAK  
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

**SEHIGA**

PROTECCIÓN LABORAL Y BARRERAS OMBUDIA

Goienkale kalea (Ermua)  
Tel: 943 172 454  
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

# A I T O R B O U Z O

## - Zeintzuk dira zure ikasketak?

Enpresen Antolakuntza eta Zuzendaritza ikasi nuen, eta bertatik bi arlo ezberdinetan espezializatu nintzen: finantzak eta merkataritza.

## - Futbolari izatetik, zer da gehien faltan botatzen duzuna?

Esperientzia izugarria da! Azken finean gustuko duzun horretatik ateratzen duzu bizimodua, eta aldi berean kirola egiten duzu. Horrez gain, lagunak egiteko aukera duzu, bidaiatzen duzu eta asko baloratzen zaituzte. Gaur egun, gaztetan egindako lagunekin geratzen naiz sarritan.

## - Futbola profesionalki utzi ostean, mundu horretan jarraitzeko asmoa zenuen?

Ez, ez nuen ez entrenatzaile, ez parte-hartzaile izateko asmorik. Futbol profesionala utzi baino 2 urte lehenago, nire ikasketekin bat zetorren lan munduan sartu nintzen. Eta onartu behar dut azkenengo urteak gogorrak egin zitzaizkidalda, lana eta futbolaria batera eramateak denbora asko eskatzen duelako.

## - Nola amaitu zenuen Ermua Futbol Taldeko lehendakaria izaten?

Nire semea futboleant hasi zen, eta aurreko presidentek kargua uzteko asmoa zuenez, proposamena egin zidaten. Laguntzeko prest



**Ermuan jaioa duela 54 urte. Zazpi anai-arreba ditu, eta bi seme-alaba. Aholkularia da, baina futbolari lotuta eman du bizitza erdia: Bigarren mailako hainbat taldetan jokatu du (Sestaon, Barakaldon eta Kordoban, besteak beste) eta Ermua Futbol Taldeko presidentea da gaur egun. Kirol askoren jarraitzailea eta kirolzalea.**

egon nintzen, eta jada 7 urte daramatzat lehendakari bezala. Izan ere, nire azkenengo urtea izango da karguan, eta uste dut jendea animatu beharko litzatekeela esperientzia honetan parte hartzen.

## - Zein da talde bateko presidentearen zeregina?

Kontrakoa dirudien arren, lan honek ez du hainbesteko beharra suposatzen. Jokatu nahi duten kirolarientzako lagungarria da, eta talde txikienek ere pertsona bat behar dute kudeaketaz arduratzeko.

## - Zer sentitzen duzu gazteak zelaian ikusten dituzunean?

Gazteek duten aukera oso polita da. Talde kiroletan, taldekideak laguntzeko, ondo pasatzeko, harremanak sortzeko eta lagunak egiteko aukerak agertzen dira. Hala ere, irabazten eta galtzen ikasten laguntzen dizu.

## - Gaur egun jarraitzen edo jolasten duzu noizbait futboleant?

Ez dut jolasten, baina telebistan ikusten dut. Badituz lagunak eta taldekideak mundu horretan jarraitzen dutenak, eta horrek nire interesa areagotzen du. Hala ere, ez dut bakarrik futbolaria ikusten, kirol asko dituz gustuko: eskubaloia, tenisa, padela eta atletismoa, besteak beste.

## - Zer nolako lotura duzu kirol horiekin?

Nire alaba eskubaloian eta atletsimoan lehiatzen da. Normalean haren partidua eta txapelketak ikustera joaten gara, sarritan beste herri batzuetara. Horrek gertutasun handia sortzen du kirol hauekin.

## - Kiroletan aditua zarela esango zenuke?

Futboleant gehien bat, horixe bizi izan baitut. Besteetan ez nuke esango aditua naizenik, baizik eta ezagutzak hartzen joan naizela. Hala ere, gauza asko landu behar dituz oraindik.

Eneko López





ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

[www.zermik.com](http://www.zermik.com)

Usaetxe plaza 6-8, behea  
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)  
Telf: 943 23 10 12



- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!**

**Erdikokale 13 (Ermua)** **ENKARGUAK 943 030 299**

## MALLABIA 1966

Argazki hau 1966 ingurukoa da, eta bertan Aizpeko Hilaria Idarraga eta Julian Gorritxategi agertzen dira. Ermuko Santixauetan argazki lehiaketa egiten zen, eta norbaitek argazki hau atera eta lehiaketan aurkeztu omen zuen.



## ERMUA 1975



Futbolari izandako batzuei omenaldia egin zieten erretiratu ostean, domina bana emanez. San Pelaioko futbol zelaian daude erretratatuta, ezkerretik eskumara tente Loren Goitandia, José Bilbao, Pedro López, Luis Mari Izagirre eta Victor Mallagarai; makurtuta Gonzalo López, Tomás Gorritxategi, Jesús Arrizabalaga eta Carlos Olañeta. 1953an hasi zen jokatzeko lehen ekipoa eta hasierako urteotan hamaikakoa baino zazpikoa osatzen zuten, "Zazpi zazpiri" modalitatean jokatuz eta inguruko herrietako beste zazpiko taldeen kontra lehiatuz.

Hamburguesería  
**TITANIC**



*Pintxo dastaketa  
poteoan*

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83



ARKITEKTURA ESTUDIOA  
BERRITZE LANAK ZURE ERAIKINEAN  
Ez dakizu nondik hasi?  
GURE LANTALDE TEKNIKOAK  
LAGUNDUKO DIZU

**ZUK ERABAKI** [www.spasa.es](http://www.spasa.es)  
[info@spasa.es](mailto:info@spasa.es)

Probaleku, 4 Bis, Bajo 48260 Ermua - Bizkaia 943 17 70 57



**ZUZENBIDE  
KONTUAK**

Lege eta  
kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina

Tel: 846080080

Mugikorra: 688885435

[zuzenbidekontuak@gmail.com](mailto:zuzenbidekontuak@gmail.com)

## LAN BILA

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.  
© 648 62 52 09.

Neska gaztea, arduratsua eta esperentziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketa lanak orduka egiteko. Egunez zein interna bezala.  
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.  
© 632 41 53 74.

Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako egiteko, edo pertsona nagusiak eta desgaituak zaintzeko. Esperientziarekin. Lan externa edo orduka.  
© 617 67 49 27

## IRAKASKUNTZA

Matematikako, fisikako eta kimikako klase partikularrak eskaintzen dira DBHn dauden ikasleentzat.  
© 688683655.



**Zorionak Eder!!!**  
**Urriaren 28an** zortzi urte bete zenituen. Musu asko izaro, aita eta amaxoren partez!!! Asko maite zaitugu!!!



**Azaroaren 24an**  
**Zorionak Mikell!!!**  
**Zorionak zuri!!!** 4 urte!! Etxeko denon partez oso ondo pasa egune!! Musu haaandi bat etxeko denon partez!!  
**Zorionak txapeldun!!!**



**Abenduaren 18an**  
**Zorionak Urko!!!** 6 urte gure txikitxoak! Musu handi bat familiaren partez.



**Abenduaren 15ean**  
**Zorionak Unax!**  
3 urtetxo! Jarraitu hain alai eta irribarretsu! Muxu erraldoia amatxo eta aitaxoren partez!  
Maite zaitugu.

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua elektronikoa helbide honetara:  
**drogeten@gmail.com**

Azken eguna: **Abenduaren 15a.**



**TXINDURRI  
TALDEA  
Tokian  
tokiko**

**PRO**  
arraindegia



**ITSASKIAK  
ARRAIN FRESKOAK  
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21  
943 17 16 96  
ERMUA

**Infreñu**  
**Taberna**

Kardenal Orbe plaza  
943 174584  
[www.infretaberna.com](http://www.infretaberna.com)



**MUSIKA  
ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • [albokamusikaeskola@hotmail.com](mailto:albokamusikaeskola@hotmail.com)

**ZINEA**

*Hilaren 4tik 7ra.*  
*Hilaren 11tik 14ra.*  
*Hilaren 18tik 21era.*  
*Hilaren 26tik 28ra.*

Zehaztu gabeko filmak.  
 Ermua Antzokian.  
 Hainbat ordutegi.

**ZINE-KLUBA**

*Hilak 2.*  
*Hilak 9.*  
*Hilak 16.*  
*Hilak 23.*  
*Hilak 30.*

Zehaztu gabeko filmak.  
 Ermua Antzokian.  
 20:30ean.

**UMEENTZAKO ZINEA**

*Hilak 5.*  
*Hilak 12.*  
*Hilak 19.*  
*Hilak 26.*

Zehaztu gabeko filmak.  
 Ermua Antzokian.  
 17:00etan.

**MUSIKA**

**Hilak 10:**  
 Kontzertua:  
 Rodrigo Cuevas,  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 12 €

**Hilak 17:**  
 Flamenkoko gabon kanten kontzertua.  
 18:30ean.  
 Orbe kardinalaren plazan.

**Hilak 18:**  
 Blues kontzertua:  
 Blues morning singers.  
 20:00etan.  
 Lobiano Kulturgunean.  
 Sarrera: 10 €

**Hilak 22:**  
 Kontzertua:  
 Alboka Musika Eskolako ikasleak.  
 19:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera doan.

**DANTZA**

**Hilak 17:**  
 "Hnuy Illa",  
 Kukai taldearen eskutik.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 10 €

**Hilak 21:**  
 Txindurri taldea.  
 17:45ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera doan.

**ANTZERKIA**

**Hilak 29:**  
 "Una noche sin luna",  
 Juan Diego Bottorekin.  
 20:30ean.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 15 €

**GABONETAKO HAUR KANPAINA**

**Hilak 24:**  
 Olenzero txikiren kalejira.  
 11:00etatik aurrera,  
 Orbe kardinalaren plazan hasita.

**Abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra:**  
 Gabonetako haur-parkea.  
 11:00etatik 13:00etara eta  
 16:00etatik 20:00etara.  
 Sarrera: 2 €

**Hilak 27:**  
 Umeentzako antzerkia:  
 "Botadun katua",  
 Glu-Glu Produkzioak-en eskutik.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 4 €

**Hilak 30:**  
 Umeentzako ikuskizuna:  
 "Epa txiki!", Demode Quarteten eskutik.  
 17:00etan.  
 Ermua Antzokian.  
 Sarrera: 4 €

**Hilak 31:**  
 Olenzeroren kalejira.  
 18:00etan.  
 Orbe kardinalaren plazan hasita.

**Hilak 3:**  
 Musika ikuskizuna:  
 "Goazen 8.0",  
 Pausokaren eskutik.  
 17:00etan eta 19:00etan.  
 Antzokian. Sarrera: 6 €.

**Urtarrilak 5:**  
 Errege Magoen kabalgata.  
 18:00etan, San Lorenzo ikastetxean hasita.

**UMEENTZAKO BESTELAKO EKITALDIAK**

**Hilak 11:**  
 Ipuin-kontaketa ingelesez.  
 17:30ean.  
 Lobiano Kulturgunean.

**Hilak 18:**  
 Ipuin-kontaketa.  
 17:30ean.  
 Lobiano Kulturgunean.

**ERAKUSKETA**

**Hilaren 12ra arte:**  
 "Zer da zuretzat lan duina?  
 Iparraldearen eta hegoaldearen arteko begiradak".  
 18:00etatik 20:00etara.  
 Lobiano Kulturgunean.

Patxi López

**Enter**  
 informática  
 SALMENTAK  
 IRAKASKUNTZA  
 ZERBITZU TEKNIKOAK  
 VI. Mendeurrena 19, behea  
 943 17 90 37  
 enter@informaticaenter.com

**aral**  
 Luis Cañas  
 Amaren  
 Cair  
 Ehun  
 Txakoli Astobiza  
 Pazo Señarans  
 Cava Oriol Russell  
 Cair  
 Casar de Burbia  
 Bodegas Valdemar  
 García de Olano  
 Manzanos Wines  
 Parnard Ricard Wines  
 Faustino García Martínez.  
 T.943176075  
 aral@aral97.com | Pol. Goitondo-Galkoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

**Proba-Leku**  
 Ileanpaindegia - Estetika  
  
 Probaleku 3, 1A  
 Tel. 943 17 05 42

**URRETA** burdindenda  
  
 ✕ Etxea ✕ Giltzak  
 ✕ Tresneria ✕ Sarrailagintza  
 ✕ Erikoizaje ✕ Kit altzariak  
 ✕ Errailak  
 Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA

Iberikoetan  
 espezialistak  
  
 VI Centenario 5 · ERMUA  
 943 172 412

# GREMIOEN

## GIDA



**ITURGINTZA**  
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA  
**LUIS VALLE**  
  
Bainugelen erakusketa  
943 17 15 56  
Tailerra  
943 17 23 56  
Goienkale z/g

**ERROTULAZIOA**  
**ROTEK**  
R Ó T U L O S  
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak  
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak  
Publizitate kanpainak · Led pantailak  
943 17 00 36  
[www.rotekrotulos.com](http://www.rotekrotulos.com)  
**ROTEK**  
**LED PANTAILAK**

**PERTSIANAK**  
**ORBE**  
TOLDOS Y PERSIANAS  
  
- Toldoak  
- Ostalaritzarako muntaiak  
- Pertsianak  
- Instalakuntzak eta konponketak  
- Motorizazioa  
- Marparak  
- Segurtasun pertsianak  
- Pertsiana dekoratiboak  
- Edoareak  
- Eitxo-sareak  
Tawera:  
Zentroko Buztea 2  
943 17 86 34 - 830 01 73 41  
48200 Ermua (Bizkaia)  
Ereketza:  
Karabasa 1  
48200 Ermua (Bizkaia)  
943 17 98 60  
persianeorbe@gmail.com

**ELEKTRIZITATEA**  
**BETA**  
**ARGIZTAPENA**  
**ELEKTRIZITATEA**  
• Proiektuak • Kalefakzioa  
• Instalazioak • Gaueko tarifa  
• Erreformak • Erradiadore elektrikoak  
Diputazio, 13 943 17 65 25  
689 23 31 71

**ETXETRESNAK**  
**Egaña**  
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN  
SALMENTA ETA KONPONKETA  
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...  
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

Zure ondoan

# ARTARRAI MENDI TALDEA



Mendi irteerak, informazioa,  
mapak, materialaren alokairua,  
federatzeko izapideak, hitzaldiak,  
ikastaroak...

**OSTEGUNERO, 19:30EAN**  
**TERESA MURGAN**

**Informazio gehiago:**  
<http://artarrai.blogspot.com/>  
[artarrai@euskalnet.net](mailto:artarrai@euskalnet.net)

